

## HILEKOA EUSKAL LITERATURAN I

# Odola dario literaturari

Nola dago irudikatua hilekoa euskal literaturan? Ainhoa Aldazabal Gallastegik esku artean ibilitako liburuetan aurkitu ditu, besteak beste, hain hedatuak dauden hilekoarekiko isiltasuna, tabua eta mina, baina baita hilekoaren beste perspektiba bat plazaratzen duten narrazioak ere. Artikulu hau euskal narratiban eta poesian hilekoaz idatzitakoetan oinarritua dago, eta bi piezaz osatutako lanaren lehen zatia da; komiki eta liburu hibridoetan hilekoaz egiten den irudikapena landuko du aurrerago argitaratuko den bigarren zatia.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Isiltasuna. Ikusezintasuna. Tabua. Horiek dira hilekoa inguratzen duten hitzak. Zuetako batzuek esango didazue beste ezertaz ez dela hitz egiten orain, modan dagoela eta gure belau-naldiko emakumeok zortea izan dugula. Baina lehenengo hilekoaz galdetzen dudanean, lotsa, beldurra, segurtasun falta, harridura eta *mecauenlaputa* dira ateratzen segitzen duten hitzak.

Jendartearen erdiak bizitza erdiz-edo bizi dugun fenomenoak bide zaila izan ohi du ama-alaben artean ere. Lehen hilekoarekin batera etorri ohi dira azalpenak –konpresak non dauden, tanpoia nola sartu– eta “Ai, maittia, emakumetu egin zara” bezalako komentarioak, jendarte honetan emakumetzeak izan dezakeen pisu eta zamarekin. Ez zaigu eta ez dugu askoz gehiago esplikatzen.


Eskolako testuliburuetan ere azalpen sistematiko eta aseptikoa ematen da, oro har. 28 egunean behin gertatzen den odol isuria da. Obulatu ostean haurdu geratu ez garelako jaurtitzen dugun haurtxo hilak odol forma du. Eta hormona batzuek aureskua dantzatzen digute txistu jasan ezinaren musikarekin. Badakizue, historiko hutsak gara.

Ia hutsetik hasten gara urte luzez launduko digun bidaide gorria ezagutzen. Eta bakoitzak era desberdinean bizitzea ez litzake katastrofea izango hilekoa kontu politiko ez balitz. Hain da politikoa, ezen azken hilabeteetako polemika bategen kontu honekin baitu zerikusia: hileko mingarriengatik baja eskatzeko lege proposamenak sortu zuen triskantza (mina asmatu egingo genuela, baja gehiago hartuko genituela, mina oso subjektiboa dela, emakumeak estigmatizatuko gaituela...). Badago, hala ere, polemika nahikorik sortu ez duen albisterik. Astekari honetan bertan irakurri dut hilekoaren kontrolerako erabiltzen ditugun aplikazioek abortatu duten emakumeen aurkako jazarpena egin ohi dutela. Zalantzarik balego, sistema heteropatriarkalak gure odolaren kontrol zorrotza egiten du erreproduktzioa azpiratu eta bereganatzeko. Federiciren *Caliban eta sorgina* liburuak (Elkar, 2014) azaltzen du hori.

Hilekoaz baino nahiago izaten dut hilekoez hitz egin. Esperientzia, ahots eta narratiba guztiak baitira oraindik beharrezko. Gure literaturaren zabala kontuan hartuta, *hilekoa* hitza askotan aurkitzeko gogoan nuen, baina ondoko hitzak dira

aurkitu ditudanak: isiltasuna, ikusezintasuna eta tabua. Abiapuntua hau izanik, *hilekoa* hitza pasarte, esaldi edo uneren batean agertzen duten liburuez hitz egin nahi nuke hemen. Eta hilekoari buruzko imajinarioa zein den ikusi. Barka liburuaren bat pasa bazait. Seinale ona litzake aipatutakoez gandi besterik balego.

Honako honetan narratibari eta poesiari erreparatuko diegu, eta komiki eta liburu hibridoak aztertzea hurrengorako utzi. Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* (Erein, 1997) nobela klasikoan protagonistaren ahots jariora irakurriko dugu. Barne bakarriketa horrek tradizioaren ahotsa ekartzen digu eta beste gai batzuekin nahastuta agertzen da hilekoari buruzko imajinarioa: *Amak baleki regla gain-gain dudalarik burua garbitu dudala / Aitak eta anaiak ez dute odolaren arrastorik ikusi behar / Odola bai, lotsaz eta ezkutuan*. Hilekoarekin duen harremanaz ere hausnartzen du protagonistak: *Ez dago munduan gauza gorrotagarriagorik hilekoaren hasieran tokatzen den igande bat baino, Txemarik gabeko igande batean, gainera, hilekoa / Txemak ere ez zuen hilekoa onartzen, sekula aitortuko ez badu ere hilekoa nuen egunetan nire gor-*



putzak atzera egiten zion, niri ere atzera egiten didan bezala. Hilekoari buruzko herri-sinesmenak antzematen dira bertan, hilekoa irudikatzen da lizuna, zikina eta ia deabrukeria den zerbait bezala. Gizonak (Txemak) dion nazka ere agertzen da, sexu-harremanak baldintzatzerainokoa.

Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (Txalaparta, 1994) liburuan hilekoarekin lotuta agertzen diren hitzak honako hauek dira: gaixotasuna, malenkonkia, zigorra, inposaketa, biziarteko kartzela-zigorra, heriotza, injustizia... ia-ia hilekoak sortzen dion haserrea uki dezakegu testuan.

Miren Agur Meabek menopausiari dikedatzen dio kapitulu oso bat *Kristalezko begi bat* (Susa, 2013) liburuan; *Adin arriskutsuak* du izena. Adierazpide klinikoagoa lehenengo pertsonarekin tartekatzen du, efektu berezia sortuz: *Aspalditik erabiltzen ditut pilula mineralak, bat goizero. Horri bai, eutsi diot. Bihartik aurrera ganoraz gosaltzen eta kirol apur bat egiten saiatuko naiz (...)* Estriak ditut sabelean (...) Udabe-

rritik hona behin etorri zait hilekoa, marka luzanga pare bat, maiatzean, fluido ilun baten nahi eta ezin bat, ez arestiko turrusta mamitsuak. Bosgarren etena dut jadanik; horixe izango zen azkena, beharbada. Menopausia, ordea, ez da hilekoak kito esatea bakarrik. Interesgarria da bizi-etapa hau kontuan hartu izana. Izan ere, hilekodun emakumeak ugalkorrek gara odola isurtzen dugun bitartean; ama potentzialak. Eta, beraz, positibizatutako etapa dela esan genezake (termino patriarkaletan, noski). Meaberen atal horrek tabua dakarkigu ordea. Are ikusezinagoa den etapa batez hitz egiten duelako.

Menopausiaz hitz egiten duen poema bat dugu Isabel Díazen *Sano erradikal* (Alberdania, 2020) liburuan: Pausa, hilekoaren galera. *Klimaterio* deitzen dio berak eta gaiari buruzko beste ikuspegi bat dakarkigu. Erritmoa moteltzeaz, geldotzeaz ari da. Eta galera bat izan arren, aldaketa bitalak egiteko aukera gisa planteatzen du.

Leire Bilbaoren *Ezkatak* (Susa, 2006) poema liburuan aurkituko ditugu gaiari buruzko hiru poema. *Odoletan 1* poemak hilekodun subjektuaren aldarrikapena egiten du, eta odola bistaratzeko *hilekoa* hitza bost aldiz erabiltzeaz gain, ispiluan odolarekin marrazten du. Aurreko testuekin alderatuta, hilekoarekiko tonu laungkoiagoa darabil poetak. *Odoletan 2* poeman tonu sentsuala darabil idazleak, baina baita probokatzailera ere. Irudi indartsu honekin ematen dio hasiera poemari: *Odolez zikindu ditut atzamar puntak // eta ahora eraman zalantzati // Nire gorputzak nahi ez duen odol honek // ez du zapore mikatzik*. Oso bisuala da eta inpaktuzkoa izan daitekeen jarrera erakusten du. *Emasabela* poeman hilekoaren indar sortzaileaz dihardu; ama izateko ahalmenaz bai, baina geure buruak edo proiektuak (bir)sortzeko ahalmena ere aldarrikatzen du, modu horretan diskurtso hegemonikoa zalantzan jarriz.

Ione Gorostartzuk *Des egiten* (Elkar, 2012) poema liburuan planteamendu interesgarria egiten du. Izan ere, odola ama izateko aukeraren gogorazpena (izan) da(iteke) eta berak hautu kontziente gisa planteatzen du: *Sor dezaket norbait- noizbait- eta hil dezaket nor-nahi- noiznahi*.

Euskal literaturan gaiaren inguruko isiltasuna nagusi bada ere, ikusi bezala liburu bakoitzak ahots eta esperientzia desberdinak dakartzkigu. Jendarte honetan hilekoak sortzen dituen min, segurtasun falta eta beldurrak aurki daitezke pasarte batzuetan, lerrootara ekarritakoetan kasu. Menopausiak sortzen duen egoera berezi eta konkretuaz ere irakurri dugu. Eta ahalduntzerako eta geure buruak ezagutu zein birsortzeko aukeraz ere aritu zaizkigu. Bada zerbait. Eta hala ere, gutxiegi da. Odol ziklo batzuen ostean ekarriko ditugu erraietatik idatzitako liburu gehiago, gaiari beste leku batzuetatik heltzeko asmoz. Odoldutako liburu gehiago behar ditugu esperientziaren anitza jaso ahal izateko. Odolari esker bizi gara. Odola gara. ●

## BABESLEA:

